

KOMUNIKAZIOAREN ETA DEMOKRAZIAREN PARADOXA: EUSKAL HERRIKO SOZIO-INGURUMEN GATAZKETAKO INFORMAZIO ESTRATEGIAK

Tesiaren egilea: Izaro Gorostidi Bidaurreazaga

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Politika eta Administrazio Zientzia Saila

Tesi-zuzendaria: Iñaki Barcena Hinojal

Tesiaren laburpena:

Doktore-tesi hau ingurumen-politiken gaineko informazio-estrategien ekoizpenen azterketan oinarritzen da.

Euskal Herrian ingurumen-politika publikoen ezarketen ondorioz (Crespo, 1999: 1; Beristain, 2010: 24) sozio-ingurumen gatazken hazkundea bizi dugu. Ikerketa desberdinetan azaldu diren datu enpirikoek (Barcena, Ibarra, Guarrotxena eta Torre, 2003; Bergantinos, Ibarra eta Martinez Palacios, 2011) baieztatzen dutenaren arabera, Euskal Herrian sozio-ingurumen gatazkek ditugu nonahi.

Ikerlan honen hipotesi nagusia hau da: izapide informatibo argiago batek eragile ekonomiko, politiko eta gizarte-mugimenduen arteko harremanak parametro egokiagoetan lekutzeko aukera eman dezake. Hots, haien arteko komunikazioa eta elkarren arteko informazio-kanalak sakonduz, ingurumen-politiken ezartze garden eta zabalago bat egin daitekeelakoan gaude.

Horrela, landu dugun helburu orokor nagusia sozio-ingurumen gatazketan informazioa nola bildu eta ekoizten den jakitea izan da, hots, zer-nolako kanaletatik sakabanatzen den eta nolako eragina duen sozio-ingurumen gatazketan parte hartzen duten eragileengan.

Finean, ikuspegi sozio-politiko batetik, sozio-ingurumen gatazken analisia jorratuz, haien dimentsio informatiboa eta komunikatiboa aztertzea izan da gure xedea.

Horretarako bi sozio-ingurumen gatazken azterketa-kasu burutu ditugu: Abiadura Handiko Trena, zehazki Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria eta Muskizeko Petronorren Fuel olioia Murrizteko planta, Koke plantaren izenarekin ere ezaguna dena. Aldi berean eta lagin espaziala kontuan edukita, prentsa izan dugu aztergai informazioaren analisi sakona egiteko.

